

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala****Basauriko Udalaren gizarte-politika arloko zuzendaria hautatzeko oinarriak**

Alkate jaunak, 2026ko abuztuaren 21ean 4204 zenbakidun Dekretua eman du. Bertan, honako hau xedatu du:

Lehenengoa: Basauriko Udaleko Gizarte Politikako zuzeneko lanpostua betetzeko prozesuaren deialdia egitea.

Bigarrena: Basauriko Udaleko Gizarte Politikako zuzeneko lanpostua betetzeko prozesua arautuko duten oinarriak onartzea. Oinarri horiek ebazpen honen eranskinean daude jasota.

Hirugarrena: Oinarri osoak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta horien laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean. Halaber, udalaren webgunean eta Basauriko Udalaren iragarki-taulan argitaratzea.

Laugarrena: Dekretu honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bi hilabeteko epean, Bilboko Instantzia Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Sekzioan, edo, bestela, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu zenetik ebazpena eman duen organo berean, hala ezarrita baitago Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan.

Basaurin, 2026ko abuztuaren 27an.—Jarduneko Alkatea (2026ko uztailaren 21eko 3856/2026 Alkatetza Dekretu bidezko eskuordetza, Zorione Goikoetxea Urtaran

**BASAURIKO UDALAREN GIZARTE-POLITIKA ARLOKO
ZUZENDARIA HAUTATZEKO DEIALDIA****1. Hautaketa-deialdiaren xedea**

1.1. Oinarri hauen xedea da Basauriko Udalaren Gizarte Politika Arloko zuzendari publiko profesionala hautatzeko prozesua arautzea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategia onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen (ETEL) IV. tituluko III. kapituluak xedatutakoaren arabera, eta aplikatzea dago-kion lan-legeriarekin bat.

Prozesuaren ezaugarriak:

- Harreman-mota: goi-zuzendaritzako izendapen edo kontratua, goi-zuzendaritzako langileen lan-harreman berezia arautzen duen abuztuaren 1eko 1382/1985 Errege Dekretuaren arabera, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen (ETEL) hamabigarren xedapen iragankorrean xedatutakoa aplikatuta.
- Hautaketa: egokitasun-, merezimendu-, gaitasun-, publizitate- eta lehia-printzipioak bermatuko dituen prozedura publiko bidez egingo da, eta izendapen askeko hautazko egintza izango da.
- Titulazioa: goi-mailako tituluduna (lizentzia edo gradua).
- Ordainsaria: ikusi fitxa (I. eranskina).
- Bateriaezintasunak: abenduaren 26ko 53/1984 Legearen bateraezintasun-araubidearen eta kargu publikoei aplikatutako interes-gatazkei buruzko legeriaren mende.

Deialdi honek kontuan hartuko du emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa, enplegua lortzeko dagokionez, Espainiako Konstituzioaren 14. artikularekin, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoarekin, eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testuategia onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuarekin bat etorritik.

1.2. Bete beharreko lanpostuaren ezaugarriak oinarri hauen I. eranskinean deskribatzen dira.

2. Izangaiek bete beharreko baldintzak

2.1. Hautaketa-prozesuan parte hartzeko onartuak izateko, izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean:

- a) Honako egoera hauetakoren bat gertatzea:
 - Europar Batasuneko herritarra edo halako baten ezkontidea izatea eta zuzenbidez bananduta ez egotea. Bestela, haietako bien ondorengoa izatea — eta bikotea zuzenbidez bananduta ez egotea — eta hogeita bat urtetik beherakoa edo adin horretatik gorakoa izatea eta mendekotasun-egoeran egotea. Hori guztia, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategia onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 57. artikuluan ezarritakoaren arabera.
 - Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuan sartuta egotea; hain zuzen ere, langileen zirkulazio askea aplikagarri den horietan.
- b) Dagozkion zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.
- c) Hamasei urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroa hartzeko gehienezko adina ez gainditzea.
- d) Diziiplina-espediente bidez edozein herri-administrazioen zerbitzutik edo administrazio horiei lotutako edo haien mendeko beste erakunde batzuen zerbitzutik kenduta ez egotea, eta epai judizial irmo bidez eginkizun publikoak betetzeko



desgaituta ez egotea. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, enplegu publikora sartzeko desgaituta edo horren baliokide den egoera batean ez egotea.

- e) Karrerako funtzionario edo langile lan-kontratadun finkoa izatea Administrazio Publikoan, A Taldean, A1 Azpitaldean, edo sektore pribatuko langilea izatea, goi-mailako titulazioarekin; eta, kasu bietan, dagokion esperientzia edukitzea.
- f) Bi kasuetan, 5 urteko esperientzia profesionala izatea, gutxienez, administrazio publikoetan edo sektore pribatuan, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 40.3 artikuluan adierazitako eremu eta/edo eginkizun hauetan erantzukizuna duten lanpostuetan:
 - a) Zuzendaritza-eginkizunak.
 - b) Pertsonen kudeaketa.
 - c) Baliabide ekonomikoen kudeaketa.
 - g) C2C2 edo horren baliokidea den hizkuntza-eskakizuna edukitzea. Deialdi honen xede den lanpostuak Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bate-ratuaren C2C2 maila dauka, igarotako derrigortasun-datarekin. Beraz, izan-gaietako inork ere ez badu hizkuntza-eskakizun hori egiaztatzen, lanpostuari C1C1 aplikatuko zaio, lanpostua hautaketa-deialdi honetan betetzeko soilik.

3. Izendatzeko prozedura

3.1. Izangaia izendapen askeko prozeduraren bidez hautatuko da.

3.2. Hautaketa Batzordeak izangaien curriculum vitae eta egiaztatutako merezi-menduak aztertu eta baloratuko ditu, merezimendu-, gaitasun- eta egokitasun-irizpideak kontuan hartuta.

Prozesuaren garapena, aurkeztutako eskabideak eta merezimenduak baloratzeko irizpideak ikusita, elkarrizketa bat egingo diete puntuaziorik onenak lortu dituzten izan-gaiei; hain zuzen ere, gehienez ere bost puntu lortu dituztenei.

Balorazio-prozesua amaitu ondoren, aurkeztutako izangaiaren aldeko txosten arrazoitua egingo da, eta alkateari proposamena helaraziko zaio, izendapena egin dezan.

Deitutako lanpostua hutsik geratu ahal izango da izangaiak ez aurkezteagatik, lan-posturako egokiak ez izateagatik edo aurkeztutakoek eskakizunak ez betetzeagatik.

4. Merezimenduak baloratzea eta elkarrizketa pertsonala

Izangaia hautatzerakoan, kontuan hartuko dira bai haren merezimenduak, bai bete beharreko zereginen alorrean duen prestakuntza. Horrekin batera, aintzat hartuko dira haren gaitasun eta egokitasuna, Administrazio Publikoari buruz dituen ezagutzak eta unibertsitate-titulazioa.

Bakar-bakarrik baloratu ahalko dira eskabideak aurkezteko epearen barruan aurkeztutako merezimenduak.

4.1. Gehienez, 10 puntu lortu ahalko dira honako hauetan:

4.1.1. Merezimendu profesionalak. Gehienez ere, 6 puntu.

- a) Lanpostuaren gaiekin zerikusia duten sektore publikoko atal, arlo edo erakundeetako zuzendari profesional gisa zuzendaritzan, gerentzian edo zuzendaritza-gerentzian izandako esperientzia. 0,40 puntu urteko, 2 puntuko mugarekin.
Ondorio horietarako, adierazitako puntuazioa zenbatuko da eskatutako gutxieneko lan-esperientzia gainditzen duten aldietarako.
- b) Udal-administrazioaren eremua ezagutzea, eginkizunak behar bezala betetzeko toki-erakundeetan edo toki-erakundeekin izandako esperien-tzia profesionalaren bidez. Gehienez ere, 2 puntu.
- c) Erakunde publiko edo pribatuekin lankidetzat harremanak ezartzeko esperientzia; bereziki, sektore publikoko entitateekin. Gehienez ere, 2 puntu.



Ondorio horietarako, konputatu egingo da, lehenik, izangaia senideak zain-
tzeagatik edo genero-indarkeriagatik eszedentzia-egoeran egondako den-
bora; bigarrenik, izangaia amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza
pertsonala, familia eta lana erantzunkidetasunez uztartzeko lanaldi-murritz-
ketan edo baimenetan emandako denbora, eta, hirugarrenik, emakumezko
enplegatu publikoen kasuan, genero-indarkeriagatik baliatutako baimenetan
emandako denbora.

4.1.2. Prestakuntza-merezimenduak. Gehienez ere, 3 puntu.

- a) Masterra edukitzea lanpostuaren xedeari lotutako gairen batean, urte-
betekoa (1) edo iraupen luzeagokoa. 1,5 puntu masterreko, 3 puntuko
mugarekin.
- b) Oinarri hauetan betebeharrak gisa eskatutako prestakuntzaren osagarria
edukitzea, karguaren eremuari eta eginkizunei buruzkoa bada, eta,
betiere, baloratu beharreko prestakuntza-ekintza bakoitza 40 ordukoa
bada, gutxienez. 0,20 puntu, prestakuntza-ekintza bakoitzeko, 1 puntu-
ko mugarekin.
- c) Eskatutako hizkuntza ez den beste batzuk ezagutzea. 0,10 puntu egiaz-
tagiriko, 0,20 puntuko mugarekin.
- d) Karguaren eginkizunei lotutako titulazio ez-espezifikoa. 0,05 puntu titulu-
ko, 0,20 puntuko mugarekin.
- e) Hautaketa Batzordearen iritziz lanpostuari lotuta dauden ikastaro, min-
tegi, kongresu eta jardunaldietara joan izana. Gehienez ere, 1 puntu,
jarduerako. Hona hemen baremoa, iraupenaren arabera:
 - 10-40 ordu: 0,01 puntu.
 - 41-100 ordu: 0,05 puntu.
 - 101-200 ordu: 0,10 puntu.
 - 201 ordu baino gehiago: 0,20 puntu.

Ez dira kontuan hartuko 10 ordutik beherako ikastaro, mintegi eta abarrak,
edo iraupena justifikatu gabe dituztenak.

4.1.3. Hautaketa Batzordearen iritziz lanpostuari lotuta dauden beste merezimendu
batzuk. Gehienez ere, 1 puntu.

4.2. Gaitasunak ebaluatzea: Izangaiek test psikotekniko bat eta gaitasun-elkarritz-
keta bat egin beharko dute, lanpostuaren zereginei lotutako gaitasun generikoei buruz.

Gehienez, 4 puntu lortu ahalko dira.

Izangaiek elkarritzeta bat gainditu ahalko dute, eta, bertan, honako hauek baloratuko
dira:

- a) Gaitasun indibidualak: malgutasuna edo integritatea, esaterako.
- b) Lidergo-gaitasunak: lidergoa, pentsamendu estrategikoa.
- c) Motibazio-gaitasunak: motibazioak, ekimena eta emaitzetara bideratzea.
- d) Analisi-gaitasunak: gatazkak aztertu eta konpontzeko gaitasuna.
- e) Pertsona arteko gaitasunak: gaitasun sozialak eta taldean lan egitekoak.
- f) Beste gaitasun batzuk: Modu eraginkorrean komunikatzeko, taldeak kudeatzeko
eta arazoak konpontzeko gaitasuna.
 - Kudeaketa estrategikoko eta negozio-kudeaketako trebetasunak.
 - Lidergorako eta taldeak kudeatu eta bultzatzeko gaitasuna, eta ekimena.

Era berean, elkarritzetan aurkeztutako merezimenduen edukia argituko da.

4.3. Izangaiei arteko berdinketa gertatuz gero, honako irizpide hauek erabilita eza-
rriko da hurrenkera:

- a) Dokumentu bidezko merezimenduak baloratzeko fasean lortutako puntuak.
- b) Elkarritzeta-fasean lortutako puntuak.

**5. Parte hartzeko eskaerak eta aurkeztu beharreko agiriak**

5.1. Hautaketa-prozesuan parte hartu nahi dutenek deialdiaren eranskinean agertzen den onarpen-eskabidearen eredua bete beharko dute. Eredua hori Udalaren web-orrian dago: www.basauri.eus [HYPERLINK: <http://www.basauri.eus/>].

5.2. Eskabideak aurkezteko epea hogeita (20) egun baliodunekoa izango da, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epea egun baliodun batean amaitzen bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da. Eskabideak, bestalde, Basauriko Udalaren alkateari zuzenduko zaizkio. Eskabidea dagokion epe eta moduan aurkeztu ezean, izangaia prozeduratik kanpo geratuko da.

5.3. Eskabidearekin batera, titulu akademikoen, eta ezagutza espezifikoak, esperientzia profesionala eta merezimenduak jasotzen dituen curriculum vitaearen fotokopia aurkeztu beharko da.

Eskabideari, beraz, curriculum xehatua eta egiaztagiri guztiak erantsi beharko zaizkio.

Administrazio publiko bateko karrerako funtzionarioa edo lan-kontratadun langile-izaera egiaztatzeko, dagokion erakundeak emandako ziurtagiria edo egindako kontratuaren kopia konpultsatua aurkeztu beharko da.

Sektore pribatuko profesional-izaera eta emandako zerbitzuak egiaztatzeko, lan-bizitzaren ziurtagiri ofiziala eta kotizazioei lotutako lan-kontratuen kopiak aurkeztu beharko dira, eta betetako kategoria eta/edo eginkizunak zehaztu beharko dira.

Nork bere kontura emandako zerbitzuen kasuan, aurkeztu ahalko dira Ekonomia Jarduerekin eta Langile Autonomoen Araubide Berezian edo dagokion mutualitatean alta emanda egotea egiaztatzen duten agiriak, merkataritza-kontratua, sozietate-eskiriturak, esperientziaren edukia egiaztatzen duten balio ofizialeko agiriak eta Gizarte Segurantzarako kotizazioaren ziurtagiria.

Era berean, izangaien merezimenduak eta gaitasuna justifikatzeko, zuzenbidean baliozkoa den edozein bitarteko onartuko da.

5.4. Eskatzaileak ziurtagirien kopiak aurkeztu beharko ditu, eta bere erantzukizuna izango da kopia horiek benetakoak izatea. Dena dela, hautatua izaten den pertsonak jatorrizkoak aurkeztu beharko ditu, bera izendatu edo kontratatu aurretik kopiak eta jatorrizkoak erkatzeko.

Bakar-bakarrik baloratuko dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen den data arte dokumentu bidez justifikatutako merezimendu eta zerbitzuak.

5.5. Baztertzeko arrazoiak izango da alegatutako merezimenduen ziurtagiriak ez aurkeztea.

Hala ere, eskabidean antzemandako egitatezko oker material edo aritmetikoak edozein unetan zuzendu ahalko dira, bai ofizioz, bai interesdunak eskatuta.

6. Hautaketa-organoa

6.1. Alkateak zehaztuko du Hautaketa Batzordearen osaketa, eta ordezkaritza parekidea sustatuko du. Behin eratuta, eginkizunak hobeto betetzeko, Hautaketa Batzordeak aditu eta profesional prestigiotsuen aholkularitza jaso ahal izango du.

6.2. Batzordea ezingo da eratu, eta ezingo du jardun, kideetako hiru, gutxienez, eta idazkaria ez badaude.

6.3. Ezingo dute batzordekide izan Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan aurreikusitako egoeraren batean daudenek.

7. Komunikazioak eta jakinarazpenak

Hautaketa-prozesuari lotutako komunikazio eta jakinarazpen guztiak Basauriko Udalaren web-orrian argitaratuta egongo dira.

**8. Hautatutako pertsona izendatzea edo kontratatzea**

8.1. Alkateak hautatutako pertsona izendatzeko ebazpena emango du, gehienez ere hiru hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Ebazpen hori ofizialki eta erakundearen web-orrian argitaratuko da.

8.2. Izendatutako pertsonak bost (5) egun balioduneko epea izango du, izendapenaren edo kontratatzeko onespeneraren ebazpena argitaratzen den dataren biharamunetik aurrera, ondoren adierazten diren agiriak aurkezteko eta lan-kontratuaz jabetzeko edo kontratua formalizatzeko. Bertaratzea jasota geratuko da. Hona hemen aurkeztu beharrekoak:

- a) NANaren kopia eta jatorrizkoa, biak erkatzeko.
- b) Eskatutako titulu akademikoaren kopia edo titulu hori eskatu izanaren fotokopia, eta titulua emateko eskubideen ordainketa, jatorrizkoarekin batera, erkatzeko.
- c) Zinpeko adierazpena edo hitzematea, jasotzen duena interesduna ez dela diziplina-espediente bidez edo izaera bereko kaleratze bidez edozein herri-administrazioen zerbitzutik edo autonomia-erkidegoetako organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik banandua izan, eta ez daukala enplegu edo kargu publikoetarako desgaikuntza absolutu edo bereziaren ebazpen judizial irmorik.
- d) Zinpeko adierazpena edo hitzematea, honako hauek jasotzen dituen: interesduna ez dagoela aplikatu beharreko legezko arauen arabera berariazko ezintasun-kausaren batean; ez daukala beste enplegu publikorik lanpostua jabetzan hartzean, eta ez dituela bete beharreko lanpostuarekin bateraezinak diren jardura pribatuak.
- e) Interesduna administrazio publikoetako funtzionarioa edo langile lan-kontrataduna, edo eskatutako esperientzia duen sektore pribatuko profesionala dela egiaztatzen duen agiria.

9. Gorabeherak eta errekursoak

9.1. Hautaketa Batzordeak ahalmena izango du sortzen diren zalantza guztiak ebazteko eta hautaketa-prozesua behar bezala garatzeko behar diren erabakiak hartzeko.

Oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen guztirako, legeria orokorrean eta aplikatzea dagozkion gainerako arauetan xedatutakoa beteko da.

9.2. Oinarri hauek, horiek aplikatuz egiten diren deialdiek eta horietatik eratorritako administrazio-egintzek administrazio-bidea agortuko dute. Interesdunek aukerako beraztertzeko errekurtoa aurkeztu ahaliko diote alkateari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri ahaliko dute, uztailaren 13ko 29/1998 Legean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenean, aurreikusitako moduan, bi hilabeteko epean. Kasu bietan, epea zenbatzen hasiko da dagokion iragarkia edo ebazpena argitaratzen eta/edo jakinarazten denetik.

10. Kontratazioa, probaldia eta kargua uztea

Hautatutako pertsona goi-zuzendaritzako kontratuaren modalitatean izendatu edo kontratatuko da, goi-zuzendaritzako langileen lan-harreman berezia arautzen duen abuztuaren 1eko 1382/1985 Errege Dekretuarekin bat.

6 hilabeteko praktikaldia edo probaldia egongo da. Aldi horretan zehar, izangaia izendatu zuen agintariak hura kargutik kendu ahaliko du, probaldia/praktikaldia gainditu ez duela uste badu.

Kargutik kentzea egintza diskrezionala izango da, baina arrazoitu egin beharko da.

Era berean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 40.11 artikuluan adierazitakoarekin bat, zuzendari profesional izendatzeak lanpostuan jarraitzea dakar, betiere egindako kudeaketaren ebaluazioaren emaitzak egokiak badira. Lanpostuan jarraitzeak esan nahi du zuzendari publiko profesionalak karguan jarraituko duela hurrengo udal-hauteskundeak egiten diren urteko abenduaren 31ra arte. Hauteskundeak egin eta



gero, toki erakundeak erabakiko du, era diskrezionalean, ea zuzendaritza-lana aurrera eramateko aldia beste agintaldi batez, gehienez, luzatzen duen. Edozelan ere, aukera hori mugatuta egon ahalko da, agindutakoa amaituta egon ala ez.

11. Aplikatzea dagokion araudia

Oinarri hauetan aurreikusten ez denerako, prozesua Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan, Funtzio Publikoa Aldatzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legean, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legean, eta aplikatzea dagokion beste guztietan ezarritakora egokituko da.

**I. ERANSKINA****Lanpostuaren profila**

Lanpostua: Zuzendaria KOD001.

Lanpostu-mailako osagarria: 29 A1.

Osagarri espezifikoak: 084.

Jardunaldia: Osoa.

Betetzeko modua: Izendapen askea.

Administrazioa: Toki Administrazioa.

Eginkizunak

- Arloa zuzendu eta koordinatzea. Zeregin horrek barne hartuko du plangintza estrategiko eta operatiboa bultzatzea, bat etor daitezen politika eta kudeaketa.
- Arloaren zerbitzuak eta langileak zuzentzea eta haien kudeaketa teknikoak egitea, atalen eta administrari eta teknikarien gaineko aginte zuzenarekin; hau da, Arloko langileen zuzendaria izatea.
- Arloaren aurrekontu-politika proposatzea, kudeatzea eta egikaritzea.
- Bere jardun-eremuko administrazio elektronikoa, gardentasuna eta gobernu irekia bultzatzea, bai eta entzute aktiboa eta herritarren parte-hartzea ere.
- Kontu emateko betebeharrak bermatzea, bere kudeaketari esleitutako gaitetan.
- Arloan etengabeko berrikuntza sustatzea.
- Arloko, erakundeko edo entitateko politiken jarraipena egitea eta horiek ebaluatzea.
- Arloak barne hartutako unitate eta atalek behar bezala funtzionatzeko neurri egoiak proposatzea.
- Arloak barne hartutako unitate eta atalen kudeaketa- edo jarduketaren plan operatiboak egitea.
- Arloko langileek oporrei, baimenei, edozein tankeratako eskubide ekonomikoak aintortzeari eta antzeko kontuei buruz egindako eskabideei buruzko txostenak egitea eta horiek baliozkotzea, beharagoko organoei eskuordetutakoen kasuan izan ezik. Arloak bere ardurapeko gaitetan eskatutako edo emandako dirulaguntzak kudeatzea, beharagoko organoei eskuordetu ahal dizkien ahalmenen kalterik gabe.
- Hala eskatzen duten prozesu eta dokumentuei buruzko ziurtagiriak ematea.
- Esleitzen dizkieten programen ekonomia- eta finantza-kudeaketa egitea.
- Arloko ordezkariaren zuzeneko ardurapean, honako hauek egitea: indarrean dauden eta Gizarte Politika Arloak barne hartzen dituen gai eta/edo ezagutza-arloei dagokien legeria ezartzeko hartu beharreko neurriak aztertzea; giza baliabideen eta baliabide materialen aurrekontu-plangintzaren proposamena egitea; ezarpen-plana aurrera eramatea, horren jarraipena egitea eta plana kontrolatzea, eta hartu beharreko neurriak berrikusteko proposamenak egitea.
- Arloaren maila goreneko beste edozein zeregin; bereziki, erakundearen maila tekniko eta politikoaren arteko koordinazioari dagozkionak.

Baldintzak

Beharrezkoa izango da unibertsitate-gradua edo horren baliokidea izatea eta langile publikoa, karrerako funtzionarioa edo lan-kontratudun finkoa izatea. Salbuespenez, Udaltzat ebatzi ahalko du enplegatu publikoa ez den norbait izendatu ahal izatea, alkateak hala proposatuta, arrazoitutako erabaki bidez, eta aurrera eraman beharreko zereginak aintzat hartuta. Honako alor hauei buruzko ezagutzak egiaztatu beharko dira: Gizarte-zerbitzuei buruzko legeria, zorro-dekretua, eta berdintasunaren, lankidetzaren, immigrazioaren eta enplegua sustatzearen alorreko legeria.



Hizkuntza-eskakizuna

EUSKARA, C2C2 HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA DERRIGORTASUN-DATA: LANPOSTUA SORTZEKO ERABAKIARENA

BASAURIKO UDALEKO ZUZENDARITZA-LANGILEA

Lanpostu-kodea	Lanpostuaren izena	LP	Lan-harremana	Titulazioa	DD	Ordainsariak	Lanpostu-klasea	HE
KOD001	GIZARTE-POLITIKA ARLOKO ZUZENDARIA	A1	Goi-mailako zuzendaritzako langile lan-kontratuduna	2	LS	OINARRIZKOAK: 21.484,16 euro OSAGARRIAK: 63.780,24 euro	Zuzendaritza	C2C2

Titulazioa: 2, hau da, gradua edo horren baliokidea.